



Erreferentziako
txartela:

Finantza-txartelen
erraztasun
guztiek in eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Doan

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2006ko maiatza
88. zkia. Doan

Ahislama

Gorbeiako aterpea

Bertsolariak Kurdistanen

Jesus Mari Zalakain

**"18/98 epaiketa Aznarren
inpunitatearen ondorioa da"**



Txakur txikiaren zubia eta Quintana torrea

Horra hor XX. mendearen hasieran Bilboko Udaletxearen alderdia zelangoa zan. Alde batetik, Ibaizabal ganean burdinazko zubi mugikorra. Jenteak txakur txikiaren zubia esaten eutsen, txakur txiki bat (balio gitxiko txanpon bat) emon behar zalako bertatik pasatu ahal izateko. Zubi hori geroago kendu eben eta haren lekuan 'Begoñako zubia' egin eben, gaur egun Udaletxeko zubia esaten dana. Uraz bestaldean, Bilboko Udaletxea (1892an eginda 1870 urtera arte Begoña zan San Agustin komentuariaren orubean) eta haren alboan, Quintana edo Markina torre ospetsua. Hatan denboretan torrea jauregi moduan atonduta egoan, antxinako sendotasuna galdu barik. Geroago bota eben eta gaur egungo Ernesto Erkoreka plaza eta Zumalakarregiren hasiera egin eben.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Gorbeia aterpea	5	▶ Kirolak	24
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Pico de las Nieves	25
▶ Ahislama	10	▶ Hezkuntza	26
▶ Ikasleak bidaiari	12	▶ Bertsolariak Kurdistanen	28
▶ Elkarrizketa: Jesus Mari Zalakain ...	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Bertonen eskribiten nabilen 8 urteotan eretxidxe hartuten nabil hamen urtien-urtien zikloak edo errepetiduten direzela. Maietza etorri ta hamen hasi direz danak atzera ta aurrera, ta aurreko urtien lez aurtan atzera.

Imigrantiek gurera be etorten hasi direz. Etorkinek geittuten dotzie oin, baie horrek berbiek dudie ekarten dost. Etorten dana "etorkin" bada, joaten dana zer da ba? Joakin? Txiste txarra, bai, barre egin badozue zoazie atoa konfesaten ta penitentzidxe kunpliduten.

Halantxe egin zeurien lehengo hilen hameko artista-kuadrile batek, ez dakitt ze pekatu ein ta penitentzidxe kurduenera eitten joan. Honeik bai Joakin. Hantxe danak antxineko hareik "korosidanzas" lez, txapela buruen, txistue, kadenetie ta zaharrak alai! Han, kurduen herridxen ta turkoben terrenoan honeik todoterreno. Ez dakigu zelango exitoa eukin daurien, baie handik martxaten itxi badotzie ez zan hainbesterako ixingo, ezpabere hantxe lotuko zirien exitoan altzoan.

Exitoa topaten hona etorri be asko etorten direz, ta harein exitoa txaloa eta bibak baino gehidxago ixiten da behin etorritte hamen haren baten bihera topatie ta jantzian ibili barik jateko beste atatie sikieran. Kurduek jantzian ipintie baino gatxagoa ixiten da hau ba. Inok be lagun-du barik gatxago ondiñokarren. Otxarkoagan Anatoliako puntie baino urrunagotik datozeneri sakadatxue emoten dotzie batzuk hamen dagozela nora joan ta nora etorri euki deidxen, kadenetan ibili barik.

Joan ta etorrian danak. Zurbaranbarriko umiek estudiaten doaz kanpora, lehenago horreiri biajerri biajerstudios geittuten jakien, baie estudia barik danerik egitten zan, edo ahal danerik hobeto esanda. Oin barriz, honeik seriamentien ei doaz estudiaten, aber honeik Bertonekoak hori konprobateko periodismodeinbestigazion apur bet eitten doskuen.

Sasoi beten Gorbeien refujidxoa euki zeurien Santutxuko gaztiek eurek be zapatu-domekatan "estudiaten" joateko. Joan, joaten ziren, halango baten derrepentean barriz, refujidxoa bera joan zan... ta oin atzera etorri dala emoten dau. Halango etzie hanka barik be, zelan ibili lei halango joan-etorridxetan? Ama birjinien nobenan misteridxoak. Ez da ibilidxen dabilen etze bakarra ganera.

Karmelo ikastoliena be halango kontue da, joan eta etorri, ta ez joan ez etorri. Etze barridxe datorrela, baie ez datorrela, baie etorten dana ez dator joan zan modure,.. enfin. Haserreen haserreez Pontoi-ko biherginek lez ingo dau baten batek akabuen, sue emon bertotik mubidu ez daiten.

Ta bizitzie ez da dana joan eta etorridxe, atzera ta aurrea, ez ba. Hor dekozue Zalakain, joan ta etorri bai, baie beti aurrerantza, Batzuek gure leukie atzera bueltan baie bidie ondo apuntata dekonak etorridxen be aurrerantza.

GURE BAZTERRAK

GARATE BIDEAREN ESANGURAREN INGURUAN




Begoñako eleizateko goiko aldean topatu geinke Garate deritxan aurkintza. Iturritxualderen bizkarrean dago, eta Txurdinagako auzunean batzen ditu Pau Casals etorbidea eta Orueta bidea, Mikoleta gora goazela. Beraren hasikerea, barriz, Ugarte bidean dago.

Beraren izenaren eretzean, esan behar dogu, ez dagoala batasunik adituen artean; horretara, bada, batzuentzat, 'garate' berba dator 'gara'tik (hau da, 'goialde' edo 'mendate'tik); beste batzuentzat, ostera, izenak 'garai'tik hartzen dau jatorria. Zer da kontua, bada? 'Garate' baserriak herri askotan topatu geinkez euskal herrietan, eta, egia esan, aburu batek zein besteak badaukie zuztarrrik, halandaze, aztertuko dot gaia, Koldo Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegiari jarraituz. (Beharbada, ez da inor pozik azalduko, nik hirugarren esangura bat azaldu nahi dot-eta.)

Lehenengo eta bat, esan behar dogu, 'garate' berba oso zaharra dala, eta Erdi Aroraino heltzen dala haren testigantza: Zuberotik Nafarroaraino sartzen da, 'goialde' edo 'mendate' esanguragaz. Bada, esangura hau egon dakioke toki-izen honi. Jon Etxaidek, barriz, 'garai' esanguragaz darabil berba hau; beti bere, ez dakigu Etxaideren erabilera herri artekoa dan edo berak darabilen hizkera jasokoa dan.

Hori guztia gogoan hartuta, ikusi geinke 'garate' berbaren 'mendate' esangura sortaldeko euskalkietan ageri dala, baina Juan Ramon de Iturrizak (Berriz, 1741 - Munditibar, 1812), XVIII. gizaldian idatzi eban Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones, eta berak darabilen esangura bestelakoa da, eta, berak dinoan legez, "baserri batzuk borobilak dira, kortabasoetan ezarrikoak legez, eta eurek badaukie mugarri edo apeamendua, eta horrexi esaten jako 'garate'". Uste dot, azken esangura honen bidetik datorrela bide honen izenaren jatorria, batez bere, kontuan hartzen badogu, 'Garate-buru' baserriaren izena dogula haren aldamenean.

GOTZON LOBERA REVILLA



ARGITARATZAILA:
Batana Batu Kultur Elkartea
ERREDAKZIOA:
Rurriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea
KOLABORATZAILAK:
Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz
ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2006ko maiatza - 88. zkia.


GORBEIAKO ATERPEA, BERRIRO ERE SANTUTXUARRENTZAT

SANTUTXUKO MENDIZALEEK KARMELO ATERPEAREN ARDURA HARTUKO DUTE

Santutxuko Mendizale Taldeak bere gain hartuko du Gorbeiaiko Karmelo aterpearen ardura. Behin jabetza eta beharrezko baimenak eskuratuta, auzotarrek osatutako batzordea sortu nahi dute, aterpea konpondu eta kudeatu dezan. Auzo lanean eraiki zuten ehunka lagunek 60ko hamarkadan eta, urte asko karmeldarren esku egon ostean, orain berriz ere auzotarrentzat izango da.

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Joseba Basterrak utzitakoak

Santutxuko koadrila bat, lanari berriz ere ekin aurretik.





(Goian)

Aterpea behetik ikusita, Aldamin elurretan dagoela.

Neskak ere lanera arrimatu ziren.

(Behean)

Aterpearen oinarria harriez osatu zuten. Gainean adreiluak paratu zituzten.

Teilatuan beharrean.



Urte batzuk egoera tamalgarrian eta bertan behera utzita igaro ondoren, Santutxuko Mendizale Taldeak bere gain hartuko du laster Gorbeiaiko Karmelo aterpea, konpondu eta berriz ere erabilgarri egiteko asmoarekin. Karmeldar fraideek, orain arteko jabeek, eraikinaren eta inguruko lur sailaren jabetza debalde emango diete Santutxuko mendizaleei eta, horrela, auzotarrek aterpeaz gozatu ahal izango dute berriro, goitik behera konpondu eta bertan egoteko behar bezala atondu ostean, jakina. Karmeldarren eta Mendizale Taldearen arteko akordioa hitzartuta dago eta abadeek jabetzaren inguruko zenbait xehetasun konpontzea baino ez da geratzen eskualdatzea egiteko.

Arazoak saihesteko asmoz, beste ezer baino lehen, aterpeari aseguru ona egiteko ardura hartuko du Santutxu Mendizale Taldeak eta eraikina itxiko du, inor sar ez dadin. Ondoren, aterpea konpondu, martxan jarri eta zaintzeko, Santutxuko auzotarrek osatutako batzordea sortuko da, Mendizale Taldearen parte gisa, baina modu autonomoan funtzionatuz. Komisioan edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, eta aterpearen lehen urteetan bezala, auzotarrek eurek bultzatu ahal izango dute proiektua.

Komisioa sortzen denean, beraz, hainbat erabaki hartu beharko dira. Alde batetik, finantzaketa nola egin pentsatu beharko da; oraingoz Santutxu Mendizale Taldeak erakunde publikoei laguntza eskatzea aurreikusitako du, baina horrez gain, ekimen gehiago ere antolatu beharko dira dirua lortzeko. Izan ere, Karmelo aterpea erabilgarria izan dadin, goitik behera erformatu behar da eta gainera Gorbeiaiko Parke Naturalaren arauak errespetatu behar dira lanak egin eta baime-nak eskatzerakoan.

HERRITARRENTZAT

Behin eraikina txukunduta, auzotar guztientzako aterpea izatea nahi dute Santutxuko mendizaleek, hori bai, azaldu dutenez, lekua aurretiaz eskatu eta ordaindu egin beharko da, arazorik sor ez dadin. Erabileragatik zenbat kobratuko den eta Santutxu Mendizale Taldeko bazkide izateagatik merkegoa izango den ala ez erabakitzea, komisioaren esku utziko dutela argitu dute Mendi Taldekoek.

2006ko maiatza - 88. zkia.

Garbiketa eta konponketa lanak antolatzea ere komisioaren esku geratuko da, horregatik, erantzukizun handia bere gain hartzeko prest dagoen jendea erakarri nahi dute, Santutxu Mendizale Taldeak ez baitauka aterpea berak bakarrik kudeatzeko baliabide nahikorik. Berriro erabilgarri noiz izango den jakiteko eperik ez dakite, baina ziur daude oraindik hilabete askoko lana dagoela aurretik, jabetza lortu eta berehala martxan hasiko diren arren.

AUZOLANEAN ERAIKI

Karmelo aterpea Gorbeiaiko Parke Naturalaren barruan dago, Agiñalde edo Aldamiñape deritzon inguruan, eta Gorbeiaiko Gurutzera zein beste hainbat menditara joateko leku aiposean kokatuta dago. 1965 inguruan hasi ziren Santutxuko auzotarrak inguru hura aterpea egiteko atontzen eta handik gutxira eraikuntza lanak hasi ziren. Obra hura, batik bat, ehunka herritarren ahaleginarekin eta eskura zeuzkaten baliabide apurrekin egin zen, izan ere, igeltsero bat eta iturgin bat izan ziren lanetan parte hartu zuten profesional bakarrak. Beraz,

Santutxuko mendizaleek, bakoitzak ahal zuen ekarpena egin zuten. Egin kontu, lo egiteko lite-rak arrantza barku batetik atera zituzten. Baliabide urriak zirela eta, lanek urte mordo iraun zuten, baina 1968ko urrian, artean amaitu gabe zegoela, Karmelo izeneko aterpearen inaugurazio ofiziala egin zuten.

Garai hartan, Karmelo elizaren inguruan eratutako Juventud Carmelo y Praga zen aterpearen ardura zeukan elkartea, eta hain zuzen ere, talde horretan biltzen ziren Santutxuko mendizale gehienak. Eraikinaren eta lurren jabetza, ordea, karmeldar fraideena zen legez, 60ko hamarkadako araudien arabera, halaxe izan behar baitzuen ezinbestean.

Hainbat urtean auzoko mendizaleen bilgune izan eta gero, baina, 80ko hamarkadan karmeldarrek aterpeaz baliatzeko aukera ukatu zieten auzotarrei, legezko jabeak beraiek zirela baliatuz eta Juventud Carmelo y Praga aspaldi desagertu zela argudiatuz. Handik aurrera, Karmelo elizaren dotrina irakasten zuten taldeek

asteburuetan-eta zenbait irteera egiteko baino ez zuten baliatu Gorbeiaiko aterpea, eta urteak aurrera joan ahala, erabiltzeari utzi zioten. Ondorioz, eraikina bertan behera utzita egon da denbora luzez eta gaur egun erabat hondatuta dago. Santutxuko Mendizale Taldearen esanetan, teiltatua baino ez dago egoera on samarrean eta, beraz, berriro ere erabilgarria izan dadin obra handia egin beharko da. Duela urte gutxi, Santutxuko gazte talde bat ere saiatu zen aterpea lehengoratzten eta erabiltzen, baina baliabide eta babes faltak galarazi zien asmoa. Orain, ordea, Santutxuko Mendizale Taldeak jabetza lortzen duenean, auzotarrek berreskuratu egin ahal izango dute beraiek sortutako aterpea.


Bizkarra makurtu sarritan egin behar izan zuten mahatsorriek.

Behean: Hamaiketakoa. Ohitura zaharrak ez dira galdu behar.



2004ko abenduan Sorgintxuloko gazteek auzoarentzat aldarrikatu zuten.


Behean: Boluntario koadrila igeltseroarekin aterpean.



BEGOÑA ETA EUSKEREA

Pontoiko okindegiari birritan behintzat eman zioten su, gerra karlistetan hain zuzen. Bigarrenaren ostean, hondarrak baino ez ziren gelditu eta urte asko eman zuen galduta harik eta 1990ko hamarkadan Abusuko ikastola gisa suspertu zuten arte. Baina hori guztia gertatu baino lehen, baten bat bazebilen gure lehenengo eraikin industrialak kiskaltzeko gogoaz.

PONTOIKO FABRIKARI SU EMATEKO GOGOAZ



Pontoiko okindegia Bizkaiko lehenengo eraikin industrialtzat daukate adituek. XVIII. mendearen akabuan altzarazi zuen Bilboko Udalak Begoñako lurretan, Ibaizabalen altzoan, errota baten ondoan. Bertatik atera behar zen bilbotarrek kontsumituko zuten ogi gehiena.

Hirurte Konstituzionala gorabehera askoko aldia izan zen orokorrean, baina baita Pontoiko fabrikarentzat ere. Alde batetik, 1821eko gabonetan matxinatu antiliberalak inguruetan ibili ziren eta, batzuen iritziz, lantegia bera zen euren helburuetako bat. Bestetik, okindegiko beharginen bat lana utzita matxinatuen artera joan zen, Konstituzioari aurre egiteko.

Behin Konstituzioa erazuta eta Lege Zaharra atze-

ra be indarrean ezarrita, urriko domeka arratsalde baten, okindegiko administratzailea fabrikako kapera txikerrera errosarioa errezatzera hurreratu zenean paper bat topatu zuen gutun azal baten sartuta eta urun masa apur batez itxita. Azalean honako hau zeukan idatzita: 'al señor administrador del Montón Echaniz entregara vuesa merced a los señores directores de la Panadería'.

Agustin Etxanizek berehala zabaldu zuen, txantxa bat zelakoan. Baina bromarik ez. Paperean "se amenazaba dar fuego a la fabrica si desde luego no se despachaba a seis individuos que expresaba por sus nombres o apellidos empelados todos en la misma panadería".

bertin

Arratsalde hartan ez eizen inor sartu kaperara. Papera utzi zuena ateko zirrikituaz baliatu zen. Bestela, goizeko mezatara joan zirenetako bat izan zen, "que fueron en grande número como sucede ordinariamente".

IZEN BAKO ZEMAIK
Izen bako eskutitz zemaigarriak protesta sozialaren modu ezagunetako bat izan daitezke alfabetatze maila minimo bat daukan edozein gizartetan eta defentsa kolektiborako aukerak ahulak direnean. Ondorioz, protesten animatzaileak identifikatu ezker berehala zigortuko dituztenez, izenik eman barik egingo dute.

Izen bako gutun, afixa, agiri eta paperak ez ziren urriak izan XIX. mende hasierako Bilbo alde hartan. Gehienetan, gainera, goiko eta erdiko klaseetako gizonak idatzi zituzten. Baina beste leku batzuetan (Ingalaterran) ikertutakoaren arabera, protesta sozial askotan horrelakoak sarri agertu ziren. Eta nekazari giroko protestetan, su ematearena eizen zemaik kutunena, garau biltegiei su ematea hain justu.

Etxanizek gutuneko azalean agindutakoa bete eta okindegiko zuzendarietako bati -Modesto Mezetari- eman zion gutuna arratsalde hartan bertan. Ez zuten txantxa moduan hartu, inola ere. Agintariei jakinarazi zieten eta hauek berehala ikerketa abiarazi zuten.

Lehenengo Etxanizek deklaratu zuen. Gero sei behargin mehatxatuak. Langileok -bost gizon eta emakume bat- ez eizen zekiten nork egin



zuen zemaia. Etxanizek, ostera, bazeukan nor salatu. Alde batetik, okindegiko langile ohi bi: "Domingo de Basaguren, foteru que vive en Zabalbide, por causa de haberse despedido a él y a la muger hace como tres meses de dicha fabrica por su mala conducta y continuos escándalos y riñas que ponían con varios de dichos seis del anónimo, de los cuales los otros cuando la despedida de ellos tomaron la parte del testigo y en consecuencia Basaguren estará resentido contra los seis". Beraz, lehenengo susmagarriak, bertoko behargin despeditu bi. Lan gatazka bat izango litzakete, kasu horretan.

Baina Etxanizek bazeukan jende gehiago bere zerrendan. Baserritar bi, hain zuzen "también ha formado algun recelo contra Francisco y Santiago de Ordorica hermanos labradores habitantes cerca del Monton a causa de que le parece que estos tendrían igual resentimiento por ser según juicio

que formó aunque no lo afirma ni lo dice con animo de agraviarles, quienes fueron obserbados y perseguidos hacia el mes de febrero de este año por el testigo y por unos de los mismos seis del anónimo por hurto que entrando en el granero con llabe falsa hacían del trigo de la panadería".

IKERKETA

Agintariak susmagarriak ikertu zituzten. Baina zorte barik. Basaguren Kantabria aldean eizen zemaik sasoi hartan. Francisco eta Santiago Ordorika itaundu zituzten, baina alferrik. Dena ukatu zuten. Hiru susmagarriek idatzitako paperak hartuta kaligrafia frogak egin zituzten, baina adituek ezin izan zuten zemaia egilea identifikatu.

Beraz, bestelako ikerbiderik gabe, ikerketa bertan behera gelditu zen. Hala ere, okindegiko arduradunek agintariak zoriondu zituzten egindako lanagatik.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AHISLAMA, ETORKINAK GIZARTERATZEKO ELKARTEA

Otxarkoagako elkarte horrek lau urteetan berrehun etorkinei lagundu die

Marta Lucía Gonzalez, elkarteko lehendakaria, Ahislama elkartearen ordenagailu gela berrian.

Otxarkoagako lokal batetik egiten du behar Ahislama elkarteak. Lau urte egin dute etorkinak laguntzen, gurean errazago integra daitezten. Formazioa ematen eta lana topatzen ahalegintzen dira. Orain arte, euren ahalegina berrehunen bat lagunentzat mesedegarria izan da.

Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona

Ahislama elkarte (Asociación Hispano, latino americana) orain dela lau urte sortu zen Bilbon eta Marta Lucía González, elkarteko lehendakaria, horrela azaltzen du bere sorreraren zergatia: "Elkartea 2002 urtean sortu zen, Marian López Márquez bilbotar enpresariaren eskutik. Marianek etorkinen alde egiteko lan asko zegoela uste zuen eta enpresa munduan eza gutzen zituen pertsonekin kontaktuan jarri zen elkarte sortzeko. Bere helburu nagusia enpresa munduko jendea, hegoamerikarrak zein euskaldunak, biltzea izan zen, denen artean Euskal Herrira heltzen ari ziren etorkinen alde zerbait egiteko asmoarekin."

Elkartea lanean hasi zenean Hegoamerikako etorkinei zuzenduta egon zen batez ere, baina apurka-apurka, bertoko jendea ere laguntza eske hurbiltzen zitzaie ikusi eta gero, euren

laguntza Bizkaian baztertutik bizi diren pertsona denei eskaintzea erabaki zuten.

"Ahislama elkartearen helburu nagusia gizartearen baztertutik bizi diren pertsonen, eta batez ere gurera hurbiltzen diren etorkinei, bizi modu duin eta iraunkor bat lortzen laguntzea da", esan du Marta Gonzálezek. "Eta sortu zenetik berrehunen bat pertsonaren integrazio sozio-laborala lortu dugu, dena dohainik, gure elkarteak ez baitu dirua irabazteko asmorik."

Euren bazkideen artean, kolonbiarrak eta ekuadortarrak dira gehienago, baina orokorrean Hegoamerika guztiako pertsonak dituzte, ipar Afrikako beste zenbait herrialdekoekin batera.

ZERBITZUAK

Ahislaman, euren gurean hurbiltzen diren pertsonen gizarteratzea lortzeko

zerbitzuak eskaintzen dituzte, batez ere formazioa eta aholkularitza juridikoa. "Hemen bizitza duin bat lortu nahi duen pertsona batentzat formazioa ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Lan bila hasi aurretik, pertsonak gizarte honetan funtzionatzeko kodeak ezagutu behar ditu, eta hori, kasu askotan, ez da erraza izaten. Hona heltzen den pertsonaren kultura mailaren arabera egokitzapena errazagoa edota zailagoa izaten da, baina oro har, denek behar izaten dute gizarteratze prozesu horretan nolabaiteko laguntza", argitu du Martak.

"Bai, askotan, izateko era ezberdinagatik gertatzen diren gaizki ulertuak diskriminazio modura hartu ditzake etorkinak, baina orokorrean ez da horrela izaten. Gehienetan, hizkuntzaren erabilera ezberdinagatik sortzen dira arazoak, guretzako arrotzak

diren esamoldeak edota hitzak erabiltzen direlako, edota euskaldunek erdaraz hitz egiteko duzuen modua guretzako gogorra eta zakarra egiten zaigulako, adibidez", azaldu du Constanza Gonzálezek, elkarteko idazkaria.

Heldu berri diren gizartearen ezaugarriak ezagutzeko, formazio ikastaroek gain jadanik integraturik dauden etorkinekin batera ekintzak antolatzen dituzte eta horiek ere baliagarriak izaten dira heldu berriarentzat. Helburu horrekin antolatzen dira, adibidez, urtero urtarrilaren seian ospatzen duten jaia (bertan 200 ume inguru biltzen dira, euren familiarekin, errege magoek ekarritako opariak jasotzera), edota Udaberriko Gala, zeinetan, afaria, desfilea eta dirua lortzeko enkantea ospatzen duten.

Egoitzan ere meriendak egiten dituzte sarritan. Horrela, heldu berriek, dagoeneko ondo egokituta daudenak eza gutzeko aukera dute. Guzti horri, elkartearen aholkularitza juridikoko zerbitzua eta lan poltsa gehitu behar zaizkio.

Zerbitzu guzti hauek eskaini ahal izateko, ekintzetatik lortzen duten diruaz gain, zenbait elkarte eta erakunderen laguntza jasotzen du elkarteak. "Gure zerbitzu guztiak doakoak dira eta bazkideek ez dute inolako kuotarik ordaintzen.

Horregatik erakundeetatik eta enpresetatik jasotzen ditugun laguntzak ezinbestekoak dira guretzako. Adibidez, Bizkaiko Aldundiak ekonomikoki laguntzen gaitu; Bilboko Udalak gure egoitza alokairu merke baten truke utzi digu eta Mujer Siglo XXI eta Asociación Alegría bezalako elkarteek dirua biltzen dituzte gure ekimenetarako", argitu du Marta Gonzálezek.

Laguntza horiei esker ere, orain

arte Ahislamak bere bazkideei eskaini diren formazio ikastaroak beste elkarte edota enpresa batzuekin egindako konbenioen bidez antolatu baditu ere, hilabete batzuk barru, euren egoitzan bertan hasiko dira zenbait ikastaro eskaintzen. "Bi enpresa handik emandako ordenadoreak jaso ditugu orain dela gutxi eta gure egoitzako gela handi bat prestatzen ari gara horiekin. Bertan informatika, euskara, ingelesa, kostura, eta beste zenbait ikastaro



eta lana aurkitzeko eta euren egoera erregularizatzeko arazoak izaten dituzte. Elkarteak lana aurkitzen laguntzen die euren lan poltsaren bitartez eta lau egun gutxi gora behera ematen dituzte lan bila. "Gure lan poltsako eskaintzak normalean zerbitzu arloetakoak izaten dira, eta batez ere etxeko lanak egiteko langileak edota eraikuntzarako beharginak eskatzen dizkigute. Kasu askotan gure hurbiltzen diren pertsonen ikasketak dituzte, baina askoz ere zailagoa egiten zaigu ikasketak maila horrekin bat datozen lanpostuak aurkitzea", esan du Martak.

Orokorrean, etorkin gehienek, hemen urte batzuk igaro eta dirua irabazi eta gero, euren herrietara bueltatzeko asmoa izaten dute baina urteak pasa ahala, zailagoa egiten omen zaie hemendik alde egitea. "Gizartearen barneratzea errazagoa izaten da etorkinek umeak dituztenean, hauen eskolatzarekin batera bertoko jendea ezagutzen dutelako. Gainera behin umeak hemen integratzen direnean gatxagoa egiten zaie familiei euren herrietara bueltatzea, seme alabak hemengoak sentitzen baitira. Arrazoi bera euskarara hurbiltzera erosten ditu, seme alabak euskal ereduaren eskolatan diren neurrian behintzat", azaldu du Martak.

Ahislamak momentuz telefono bidez eta web orri baten bidez eskaintzen ditu bere zerbitzuak eta hemendik gutxira Otxarkoagan, Lozón kalearen 29. zenbakian, arratsaldean eskainiko dituzte. Bitartean, 677974959 telefonoan eta ahislama@wanadoo.es helbidean kontaktatu daiteke eurekin.

antolatuko ditugu hemendik gutxira", azaldu du Constanza. "Kasu askotan jubilatutako enpresari edo irakasleak izango dira ikastaroen arduratuko direnak. Kasu guztietan boluntario moduan egingo dute lan".

ARAZOAK

Ahislamara hurbiltzen diren etorkinen beharrezkoak nahiko antzekoak izaten dira orokorrean; batez ere etxebizitza



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

IKASLEAK, BIDAIARI

Zurbaranbarriko eskolako gaztetxoek Galizian eta Tenerifen egon dira astebetez

'Eskola Ibiltariak' proiektuaren barruan Zurbaranbarriko Eskolako 6. mailako ikasleak, Galizian batzuk eta Tenerifen besteak, bidaiari ibili dira lekuan lekuko bizimodua, kultura, parajeak... ezagutzen eta disfrutatzen. Ez dira bakarrik joan. Proiektu horretan beste elkarte autonomotako hainbat eskolatako neska-mutilek ere parte hartu dute.

Testua: Itxaso Perez



lurraldea eta jendea, ohiturak, historia eta baliabideak ezagutzea, ikasle taldeen arteko elkarbizitza sustatzea eta hizkuntza ezberdintasunak onartzen ikastea. Baita ingurumena eta ondarea baloratzea eta etengabe ikastearen aldeko jarrera sortzea ikasleengan.

Metodologiari begira, erabat parte hartzailea izatea bilatzen dute, ikasle beraiek izan daitezten lekuan lekuko datuak aztertu eta euren kabuz ondorioak atera ditzaten. Horrela lortzen dute neska-mutilak ondo pasatzea lanean. Eta ikasi, jakina, baina ederto, geletatik kanpo!

Baina garrantzitsuena da, irakas-

Buelta asko eman ditu proiektu horrek 1984ean sortu zenetik. Gazteen turismoa bultzatzearen sortu zen baina gaur 'Eskola Ibiltariak' proiektuak bestelako helburuak dauzka. Zurbaranbarriko irakasleak bere garaian proiektuan kolaboratzaile gisa hasi ziren, beste eskolei harrera eginez, bazkaltzen ematen... Gero, bertan parte hartzeko erabakia hartu zuten.

Aurten 6. mailako gela biek bidaiari bana egin dute. Hamaika eta hamabi urteko neska-mutilotako batzuk azaroan Tenerifen egon ziren eta besteak Galizian apirilean. Euren batera Nafarroa, Teruel, Guadalupe eta Lugoko ikasleek parte hartu dute bidaiari horietan.

ELKAR EZAGUTZA

Aipatu bezala, Eskola Ibiltariaren hasierako eta gaur egungo helburuak ez dira berdinak. Hezkuntzaren



barruan sartuta dagoenez geroztik zeharo aldatu dira. Kontuan hartu behar da erkidego autonomoen arteko elkar trukaketa dela. Besteak beste, helburuak dira bisitatutako

leen ustez, zelako erreakzioak dituzten ikasleek beste kulturen aurrean. Zurbaranbarrikoek euskaraz egiten zuten, galiziarrek galizieraz eta dena

normal-normal. Hori da gehien bat ebaluatzen dutena, elkarbizitza zelana garatu den.

BESTE LURRALDEAK

Ane eta Juan Carlos izan dira bidaiari arduratu diren irakasleak. Ikasleekin hala Tenerife irlaz nola Galiziaz koadernotxoak bete dituzte,



herrialde horien kokapenaren, ekologiaren, etnografiaren, balioen eta beste ezaugarrien berri izateko asmoz. Internet ere tresna baliagarria izan zaie datuak eta argazkiak eskuratzeko. Euren asmoa zen herrialdea ezagutzea bidaiari egin baino lehenago.

Nora joango diren aukeratzea ez da guztiz libre; eskatzea bai, ordea. Preferentzia zerranda bat egiten dute eskaera egiterakoan eta gero, Espainiako Hezkuntzako arduradunek erabakitzen dute horren arabera nora bidali. Zurbaranbarri ez zaio ba aurten 'sari nagusia' egokitu? Teneri-

fera! Zurbaranbarri 6. mailako gela bi daudenez, bakoitzak bere aukera egin zuen.

Bidaia hauetan parte hartzea ez da derrigorrezkoa. Izan ere, Galiziarra joan den taldean 5. mailako baten bat bazegoen. Hala ere, 6. mailako inork ez du huts egin eta aukera paregabe hori ondo aprobetxatu dute esperientzia polit batez gozatzeko. Gainera, Ane eta Juan Carlos irakasleek asko ikasten dutela nabarmendu dute, eta heldutasuna garatzeko ere oso egoera aproposa izaten dela.

Esan bezala, ekintza hau Estatu osorako antolatuta dago. EAEtik hamar bat dira bidaiari parte hartzen



duten eskolak eta hamabi dira Estatutik Bizkaira etorri edo etorriko diren eskolak, bidaiari bakoitzak hiru eskola biltzen direla. Lo egiteko lekuak eskola-egoitzak izaten dira normalean. Zurbaranbarri ez dago horretarako lekurik. Horrexegatik hona datozenek Gasteizen egingo dute lo, bertan halako egoitzarik baitago, eta Bilbora hurbilduko dira Guggenheim eta Euskalduna jauregia bisitatuz. Zurbaranbarriko eskolan bazkaldu ostean, Zazpi Kaleetara joango dira. Gainerako egunetan, bisita gehiago egingo dituzte, adibidez, Donostia, Aquariuma ikustera.

TENERIFEN ASTE BAT

Beno, eta bidaiari? Ez aspertzekoa, benetan. Egun osoan zehar hemendik hara, lantegi hau goizez eta museoa arratsaldean. Eguzkia hartzeko astirik ez, eta gainera, azaroan joanda, eguzki gutxi. Guadalajarako eta Lugoko eskolekin batu ziren La Lagunan, Tenerifen. Hurrengo egunean, goiz goizetik Icod de los Vinosera joan ziren platanoak biltzen dituen lantegi-

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiozko dekorazio deribatutak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna

Iturriaga 96.
Gosari bereziak:
Kafea + pintxoak 1,50 €.



Euskal Herria
AURRERA!!



ra, baina ezin izan zuten ikusi, matxura bat eduki zuelako. Bertan ere hiriaren alde zaharra, El Drago Milenario parkea eta Guantxen leizea bisitatu zituzten. Bazkaltzeko, Garachicora, antzinako kaia eta defentsa-gaztelua ikusiz. Eguna amaitzeko, Puerto la Cruzen Espezien Aklimatazio Parkea (Gizateriaren Patrimonia dena) bisitatu zuten.

Biharamunean, besteak beste, guantxe errege-erreginak ezagutu eta Teresiten Hondartzara joan ziren, afrikar kontinentetik datorren hondar zuriz osatutako hondartza hain zuzen. Hurrengo egunetan Zientzia eta Kosmos Museoa, San Cristobal de la Laguna hiria, Loro Park (mundu osoko animaliak) Lagos Martianezen igerileku naturalak, ... bisitatu zituzten.

Ana Arana irakasleak kontatu bezala, bisitarik ikusgarrienak denak aho zabalik utzi zituen. Bailaderoko begiratokitik irla osoa ikusi, Teide, La Laguna harana, baita La Gomera eta Gran Canaria irlak ere ikusi ahal izan



zituzten. Igandean Teide inguruak ezagutu zituzten, sumendiak zelangoak diren jakin zuten eta, amaitzeko, Kristauen hondartzara hurreratu ziren, euriari jaramonik egin barik.

ETA GALIZIAN...

Apirilaren 25ean ekin zioten bidaiari. Lugo, A Coruña eta Pontevedraren hainbat leku ezagutu zituzten. Lugon 'A Rapa das Bestas' zaldi basatiei zurdak ebakitzen dizkieten herri-festa dela ezagutu zuten. Gero, ehunka

urte dauzkan eukalipto zahar-zaharra ikusi ahal izan zuten Chavineko eukaliptoen basoan. 'El Abuelo' esaten diote. Egun berean, Galiziako ezaugarria den arrain kontserben enpresa batetara joan ziren, Albo-kora hain zuzen. Usaina ez ei zen oso gozoa.

Bistaz disfrutatzeko eta lekurik aipagarrienetakoa Foz-eko labarrak izan zen. Izugarria omen zen olatuek haitzen kontra jotzea ikustea, baina ikusgarria ere erertzeko lore ederrek inguruari ematen dioten kolorea. Burela herri arrantzalean egon ostean, Lugon erromatar harresiak ezagutu zituzten. Arratsaldean kostaldera berriz, Fomiña (Miño ibaia itsasoratzen den lekua) eta Villadongako Kastroa bisitatu zituzten.

Bidaiak denetariko osagaiez bete zuten: Santiago, A Coruña, kostaldea, Pontevedra eta Vigoko itsasadarrrak, Arousa uhartea, muskuilu hazilekuak, Moañara barkuz, Castreloseko pazo...

IKASLEEN BIZIPEN BIZIAK

Bidaien protagonista izan direnen iritziak jaso ditugu. Zer gustatu zaie gehien bat, zer gutxiago, zergatik interesgarria hau edo bestea... horrelako galderei honelaxe erantzun diete: Aitor: Oso polita izan zen bidaiak, eguzkia zegoelako eta Tenerife oso polita zelako.

Sara: Asko gustatu zitzaidan eguzkia zegoelako eta baita egunak oso azkar pasatu zirelako.

Eider: Proiektu hau oso ona izan da bidaiak joan garelako eta herriak eta gauzak ikusi ditugulako eta jendea ezagutu dugulako. Beste eskolekin joan gara eta horrela lagunak egin ditugu.

Andrea: Lagunekin oso ondo pasatu genuen, jendea ezagutu dugu eta gero eskutitzak bidaltzen ditugu.

Eider: Tenerifen gauza interesgarriak ikusi ditugu: Dragoak, Loro Parkea eta erresidentzia.

Mikel: Niretzat onena lagunak egitea eta gauzak izan ziren. Ia ez genuen lo egiten, hitz egiten genuelako eta Juan Carlos, gure tutorea, ia bost minuturo etortzen zen...

Asier: Teide ikustera joan ginenean euria egiten zuen, eta hondartzan ere, eta hori arraroa da Kanarietan.

Gabriel: Niri gehien gustatu zitzaidana izan zen Lagos Martianezen eta Loro Parkea, gauza asko ikusteko zeudelako. Lagos Martianezen oso ondo pasatu genuen piszina naturalak zirelako, ur gaziaz.

Sandra: Niri gehien gustatu zitzaidana Loro Parkea izan zen, show batean itsas elefante batek eman zidalako muxu bat.

Asier: Niri gehien gustatu zitzaidana izan zen hondartzara joatea. Oso hotz zegoen. Piszinak zeuden itsasoaren parean,

eta ondoan, harresi handi bat zegoen eta olatuak jotzean goraino ailegatzen ziren.

Aroa: Jauregi batean egon ginen eta lagun bat, Mikel, erreka batetara jausi zen... txanpenez betetako errekarra, kar kar! Gero bidaiak oso bustita eman zuten.

Asier: Tenerifeko janaria oso txarra zen!!

Maria: Gehien gustatu zitzaidana Santiagoko Katedrala izan zen, oso handia eta oso polita zelako.

Mikel: Niretzat gutxienezkoa janaria zen. Ni Tenerifera joan nintzen. Janariarena ez zitzaidan inportatzen, lagunekin nengo eta ez nintzen gose.

Lara: Gaeuz lagunekin egoten ginen hitz egiten eta jolasten eta oso ondo pasatzen genuen denok batera.

Olatz: Niri asko gustatu zitzaidan Tenerifera joatea ez nuelako inoiz hegazkinez hegan egin.

Eneritz: Niri Gizakiaren Museoa gustatu zitzaidan, Lugon. Bertan zegoen munduko gizakirik handiena...


Gabriel: Tenerifeko erresidentzian Mikel M., Mikel G., Guadalajarako bat Dani izenekoa, Lugoko bat deitzen zena Jesus eta nik dantza konkurtsoak egiten genituen...

Andrea: Bigarren erresidentzian gaeuz festa bat egin genuen, eta ia ia danok negar egin genuen...

...Eta azkenean, denak batera euren iritzia plazaratu nahian, eta gehien aipatzen zutena zen Lorategi Botanikoa, bertan landareen izen bitxiak ikasi zituztelako, bai Tenerifen izan zirenek, baita Galizian egondakoek ere. Denak pozik eta oroitzapen politekin. Bakoitzak berea.

JESUS MARI ZALAKAIN

"18/98 epaiketa Aznarren inpunitatearen ondorioa da"



EUSKAL PRESOAK

Orain dela hogeita hiru urte heldu zen Santutxura Jesus Mari Zalakain tolosarra. Harrez gero, hamaika kontutan murgilduta ibili da, beti ere euskal prentsaren alde buru belarri jardunez. Egin, Euskaldunon Egunkaria eta beste hamaika proiektu bere lanaren eta kemenaren lekuko dira. Unibertsitatea, ostera, bere sendotasunarena, hamalau urte direlako kaleratu zutenetik eta ez du etsi. Euskal prentsaren alde emandakoak ordain krudela ekarri dio orain: azken zazpi hilabeteak Madril eta Euskal Herria artean eman ditu, 18/98 sumarioan auzipetuta. Bere delitua, Egin egunkariko administrazio kontseiluko kidea izatea. Fiskalak berarentzat 48 urteko kartzela zigorra eskatu du.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

ESKUBIDE GUZTIEN

Epaiketaren zazpigarren hilabetean gaude. Atzo itzuli zinen Madriletik eta, berriro ere, ustezko frogak galdu dira...


Frogak galdu dira hasieratik lotsa galduta daukatelako. Egin egunkariak bere garaian esan zuen 'juizioa galdu dute' nolabait esateko hau erabateko bidegabekeria zela. Orain arteko hilabetetan argi ikusten da oso modu axolagabea ari direla lan egiten, nire ustez Aznarren agintaldiaren -nik Aznarato esaten dudana- inpunitatearen ondorioak direlako. Ikusten ditugun gauzek badirudi ez daukatela inolako zentzurik baina badute bere zentzua. Ez dira inongo arrazoirik gabe egiten.

Oraingoan desagertutako frogak zure kontrako salaketaren oinarria dira.

Bai. Niretzat Garzonek 48 urteko kartzela zigorra eskatu zuen eta horietatik 30 ustezko delitu ekonomikoengatik dira. Badirudi paper horiek galduta daudela. Ez bakarrik galduta, baizik ez daudela txertatuta sumarioan. Eta ez da lehenengo aldia. Egin-eko administrazio kontseiluaren batzar baten akta bat ETAREN eskuetan jarritakoa eta Dorronsorori harrapatu omen ziotena, hura ere ez zen agertu. Hala ere, ez daukate duintasun nahikorik esateko 'ez daude' eta behar diren erabakiak hartu. Orain saiaturik dira bilatzen edo egiten, baina zaila daukate. Gure abokatuak Garzonen idazki bat daukate. Bertan, paper horiengatik galdetuta hitzez hitz erantzuten du esanez 'ez dago gehiago'.

Kafkaren gustuko eszena ugari ikusi ditugu epaiketan zehar...

Bai. Erabat kafkiarrak. Hasteko, ez da oso ondo ulertzen nola pertsona batzuk dauden hor batera jakin gabe ETakoak zirenik. Eta gero inprobisazio handiaz jokatzeko ari dira. Baina batez ere inpunitatearen ereduarekin jokatzeko ari dira. Bere garaian Aznarren agintaldian erabaki zuten ezker abertzalearekin amaitu behar zela, erauzi behar zituztela ezker abertzalearen doinua kantatzen duten talde eta pertsona guztiak eta orduan bost axola legean oinarrituta zegoen edo ez. Ad hoc egindako legeekin jokatu



zuten. Bazekitelako azkenean kondena bat etorri behar zela eta eurek legea bete ala ez, berdin zen. Azkenean, Espainiaren onerako izango zela Euskal Herrian dagoen zabor guztia baztertzea. Orain daukaten arazoa da ez dakitela hortik nola atera.

Baina zergatik egiten ari da epaiketa hain baldintza xeletetan?

Nahiz eta beste alderdi bat egon orain boterean, Estatuak oraindik lehengoa delako. Estatuak urte asko daramatza gauzak legean oinarritu gabe egiten. Auzitegietan, bereziki, elementu horiek oso ondo kokatuta daude eta horien eraginez auzia

aurrera doa. Aurrera doanez, makinariak baditu bere arauak eta oso zaila da geldiaraztea ez badago borondate politiko garbi bat. Jakina, horrek ere adierazten du Estatuak ez dituela asimilatu garai berrien zantzuak.

Zazpi hilabete bete dituzue hara eta hona, astero Madrilerako joan-etorria egiten. Zelakoa da zuen astea?

Guretzat astea hasten da goizeko 4,30ean. Ordubete geroago furgonetak hartzen ditugu eta Madrilerara abiatzen gara. Han egunak izaten dira goizeko hamarretatik ordu bietera Auzitegi Nazionaleko areto baten

sartuta, etenaldiekin, atsedenaldira araroekin... Eta arratsaldean lau eta erdietatik zazpi eta erdiak edo zortziak arte. Eta orain arteko sei-zazpi hilabete hauetan inoiz jakin gabe hurrengo egunean zer gertatuko zen. Hasieran esaten genuen luze jo behar zuela eta lau-bost hilabete izango zirela eta jendea asaldatu egiten zen. Zazpigarren hilabetean gaude eta oraindik nik uste dut ekudorrera ez garela iritsi. Olentzerotarako amaitzen badugu, gaitzerdi. Astean bi egun eta erdi egoten gara Madrilen. Irrikan hona etortzen. Baina horrek eguneroko haria apurtu egiten du: Madrilen gaudela Euskal Herrian pentsatzen ari gara eta Eus-

kal Herrian gaudenean pentsatzen ari gara maleta egin behar dugula hurrengo egunean.

Babestuta sentitzen zarete?

Bai. Besteak beste badakigulako gure auzia ez dela gurea, baizik eta Euskal Herria osoarena. Jendeak ahal duen neurrian laguntza ematen du. Guretzat erabat ezinezko izango litzateke ekonomikoki modu pertsonalean erantzutea epaiketa honi. Euskal herritarren eskuzabaltasunari esker ahal dugu bidaiak egin, furgonetak alokatu, Madrilen lo egin, bazkaldu,... Alde horretatik oso ondo babestuta sentitzen gara. Eta bestetik, jendeak jakin min handia dauka gau-

zak nondik nora doazen jakiteko. Zoritxarrez, prentsak oso gutxi ematen du gure berri, pare bat egunkari kenduta eta noizean behin telebista. Umezurtz ez gara batere sentitzen.

Eta Madrilen zaudetenean, beldur zarete?

Beldur ez. Hasieran fatxak-eta inguratu ziren pare bat aldiz. Baina argi dago erabaki politiko bat hartu dutela inor hurbiltzen ez uzteko. Eta hasieran kontrabigilantzia handia bazegoen ere, momentu honetan ia ez dago ezer. Batzuetan poliziak urduri samar ikusten ditugu. Hori bai, ezinezkoa egin zaigu euskaldunen presentzia bermatzea Madrilen. Egia da oso luzea dena eta egutegia nola joango den ere ez dakigula. Jendeak ahal duenean joaten da.

Auzipetuta zaude Egin egunkari-ko administrazio kontseilukoak izan zinelako. Egunotan, epaiketan, administratzaile judizialak aitortu du nahita utzi zutela Eginen ondarea galtzen...

Amorru handia sentitu dugu. Amorrua ikusten guregandik bi metroara gauzak galtzen utzi dituen. Berak esan zuen Garzonen aginduak bete zituela eta zuzenean ez zuela ezer ikusi, ... Kontua da utzikeria oso nabarmen gelditu dela, baina epaileak babesa ematen dio administratzaileari. Pena handia sentitu dugu eta begi batzuk gorritu ere egin ziren Egineneko lokalen bideoa eman zutenean.

Egin itxi zuten lehenengo, Egunkaria geroago,... Euskal prentsa jomugan eduki du Estatuak...

Bai, batez ere euskal nazioa antolatzen lagundu nahi duen prentsa. Nik ez dut uste Euskaldunon Egunkaria euskaraz zelako itxi zutenik, baizik eta Euskaldunon Egunkariak bere sakonean bazeukalako euskaratik, hau da hizkuntza nazionaletik, herri hau antolatzeke asmoa eta gogobetea. Oso garbi ikusi zuten Euskaldunon Egunkaria ixtean Euskal Herriaren bihotza ukitu egiten zutela. Gainera, eurek esaten zuten Egin itxi zutenean lurrikararik ez zela gertatu eta beraz posible zutela beste egunkari bat ixtea. Oso kolpe bortitza izan zen baina ez zuten kontatu datu



batekin: Euskal Herri hau fenix hegazia bezalakoa da eta bere errautsetatik birjaio egiten da. Egunkaria bat kendu eta beste bat sortzeko gaitasuna badu.

Euskal prentsa barru-barrutik eza-gutzen duzu. Zelan ikusten duzu gaur egun euskarazko prentsa?

Euskarazko prentsa indar handiarekin ikusten dut, ekimen gaitasun handiarekin. Benetako altxorra da. Argi eta garbi erakutsi du belaunaldi berriak kapaz direla euskaraz benetako prentsa egiteko. Euskarazko prentsa gaur egun beste edozeinen pare batere lotsa gorritu beharrik izan gabe. Aberastasun handia dago bai prentsa nazionala egiteko eta baita ere aldizkari txikiagoak plazaratzeko. Prestakuntza aldetik ere jendea oso ondo prestatuta ikusten dut. Pena ematen dit agintariek ez ikustea hori erabat estrategikoa dela. Luze joko du, herri honek bere etorkizuna bere gain hartzen ez badu.

Hamaika proiekturen bultzatzaile izan zara. Zeintzuk ikusten dituzu euskarazko prentsan erroka nagusiak?

Batetik, etengabe ugaritzen joatea. Bi, ez egitea aurreko egunetik bada-

kigunaren errepikapena. Horrek eskatzen du azterketa gehiago, analisi gehiago, erreportaje gehiago,... Eta hori dena ekarri behar du prentsa kontsumitzen dugunok ez pentsatzea: hau banekien, ezer berririk ez didate eman. Errezkeria joera hori badago baina ez euskal prentsan bakarrik, denean. Erronka handia da hori. Eta beste bat, esparru gehiago irabaztea, etengabe. Joan Mari Torrealdai behin esaten zuen, egunen batean Euskal Herria kapaz denean 'Hola' bat euskaraz egiteko horrek esan nahi du, nahiz eta 'Hola' arbuatuko dugun, erabateko kapazitatea daukala. 'Hola' bat egiteak ez dauka inongo lehentasunik, baina horrek esan nahi du mota guztietako prentsa esparruak harrapatzea. Eta euskal irakurleok ere badaukagu erronka argi bat, euskarazko prentsa irakurtzea.

Unibertsitateko irakasle kanporatua zara. Zelan dago orain auzi hori?

Hamalau urte daramatzagu pankarta baten atzean. Jendeak ez dakiena da lehen eguneko pankarta bera dela. Gasteiztar lagun batzuek eman ziguten eta esan ziguten: honek iraun egingo du. Guk pentsatu genuen

iraungo zuela pankartaren kalitatea-gatik. Gertatu dena da pankarta bakarrik ez, arazoak ere iraun irauten duela. Bi errebindikazio genituen: irakasleria propio bat edukitzea eta Unibertsitatean irakasle izateko ez izatea derrigorrezkoa funtzionario izatea. Beraz, kontratu laborala irekitzeko aukera zabaltea. Bigarren hori lortuta dago. PPK egindako azken hezkuntza legean sartu zuen. Orain badago aukera langile huts modura sartzeko Unibertsitatera. Inpresioa daukat jendeak ez duela ondo barneratuta horrek ze esfortzu handia eskatu dien hainbat eta hainbat irakasleri. Falta da irakasleria propioaren definizio hobea. Iztueta legeak pauso bat eman zuen. Lehen zutabea jarri zuen. Iztueta legeak ere zabalik utzi zuen atea gu berriro Unibertsitatera sartzeko eta lehen geneukan lekura itzultzeko eskubiderik galdu gabe. Artikululu bat dago erabat gutaz pentsatuta. Okerrena da PSOEek hori zapuztu duena helegitea jarritz. Horrek luze joko du. Momentu honetan eskuak lotuta gaude. Errebindikatzera badoaz hori esaten digute 'egin dugu'. Orain Madrilera askatu behar du korapilo hori. Gatazka konpontzeko korapiloen artean korapilo hori askatuko ote da? Uste dugu baietz.

Kirolean doping eguneroko kontua ote da?

PEDRO (BARAKALDO)

KIROL AMATEURRERAN EZ. KIROL PROFESIONALEAN IGUAL BAI. MARKAK GERO ETA HOBEAGOK DIRA ETA GENETIKOKI EZ DUT USTE HOBERANTZ GOAZENIK.



AITZIBER (TXURDINAGA)

BATEZ ERE ZIKLISMOAN AGERTU DA BAINA EZ DA KONTU OROKOR BAT.



LAURA (SANTUTXU)

ORAIN TXIRRINDULARRIAK HARRAPATU DITUZTE BAINA BESTE KIROL ASKOTAN BE EGONGO DA. FUTBOLEAN BE DOPING KASU PILOA IZAN DA.




CRISTINA (SANTUTXU)

NAHIKO ZABALDUTA DAGO. KASU BATZUK AGERTZEN DIRENEAN GEHIAGO DIRELAKO IZATEN DA. EZ DIRA KASU PUNTUALAK. ZER EDO ZER GEHIAGO DAGO.



UNAI (SANTUTXU)

ZIKLISMOAN BADA DOPING HORI, BAINA BESTE KIROLE-TAN BE IZANGO DA. GITXIAGO IGARTEN DA BAINA SEGURU BADALA.



IBAN (ONDARROA)

ZIKLISMOAN BAI. FUTBOLEAN ETA BESTE KIROLEAN GITXIAGO BAINA IZAN BADA. BATEZ BE, ZIKLISMOAN. EZ DA NORMALA SPAGHETTI BATZUK JAN ETA EZ DAKIT ZENBAT ORDU BIZIKLETA GAINEAN EGOTEA.

SHEILA (ZORROTZA)

KIROLARI ASKOK DOPING HARTZEN DUTE, EZ DAUKAT DUDARIK. JENDE ARRUNTAK EZ.



JASMINA (DEUSTUA)

PROFESIONALEN ARTEAN, BAI. BAINA KIROLARI NORMALEK EZ DUTE HARTZEN.

A
K
A
R
K
A

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Zumalakarregi eta Ravel kaleak boulevard bihurtzeko lanak ekainean hasiko dira

Salbeko zubia atondu ostean, Panera etxeetarainoko zatia egokitzen hasi behar dute

Salbeko zubian egokitze lanak egin eta gero, ekainean Maurice Ravel etorbidearekin hasiko dira oraingo autobidea boulevard moduan atontzeko asmoz. Udagoienera Trauku eta

Ugaz parrokoaren zeharkalearen arteko zatiarekin hasiko dira. 2008an azken atalari ekingo diote, Santutxu eta Txurdinaga banatzen duen autobide zatiari alegia.

Bilboko Udalak eta Bizkai-ko Foru Aldundiak adostu bezala, Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideak oraingo euren izaera galduko dute eta hiri barruko boulevard moduan atonduko dituzte. Urteetako kexa izan da Uribarri eta Begoñako bizilagunen partez hori kalea baino autobidea dela, Bilboren bihotzeraino sartzen den autobidea hain zuzen.



Saso baten Bilboko Udalak autobide hori lur

azpian ipintzeko planak egin zituen, baina azkenean aukera hori baztertu du, dirutza ikaragarria beharko lukeela argudiatuz. Auzoek, oster, ez dute hori ahaztu eta batzuek, Uribarriko Gure Etxea auzo elkarteak kasu, aldarrikapen horri eus-ten diote, oraingo plana adabaki hutsa izango delakoan.

Holako obra handi guztiak bezalaxe, atalka egingo dute. Lehenengoa, amaitzeaz dago. Salbeko zubia zaharberri- dute eta Guggenheim museoaren inguruarekin hobeto lotu dute. Planak bete ezker, ekainean hurrengo hiru atalak hasi behar dituzte. Alde batetik, Salbetik Artazamina eta Etxezuri kaleen arteko kantoirainoko zatia. Bertan espaloiak zabaldu, arbolak landatu, semaforoak paratu eta inguruko etxeetarako sarbide berriak edo egokiagoak egingo dituzte. 2007ko mar- txoan amaitu behar dituzte lanak.

Hilabete honetan bertan Artazamina eta Etxezuritik Trauku eta Panera etxe multzorainoko zatia egiteko lanak hasiko dituzte. Alderdi horretan ere zuhaitzak, lorategiak eta espaloiak egokitzeaz gain, alboko kale eta auzoekiko komunikazioak erraz- tuko dituzte. 2007ko martxorako prest egingo dira.

Eta ekainean hiruga- rren atal bat hasiko dute: Ugaz parrokoaren zehar- kaletik Zabalbideraino doana. Alde horretako zati bat eginda dago honez gero, Begoñako tunelak 2005ean zaharberri- tuzten-eta.

LOTURA HANDI BI
2006ko udagoienera Trauku kaletik Ugaz parro- koaren zeharkalea bitarte- ko zatiari ekingo diote. Horrek zailtasun handiak

edukiko ditu eta 2008ko apirila arte ez dute amaituko. Izan ere, Zumalakarregi eta Maurice Ravelen arteko lotura zeharo aldatuko dute. Bertan gaur egungo autobidea desagertuko da eta haren lekuan biribilgune (errotanda) zatikatu bat paratuko dute, lorategiez inguratuta. Beraz, bertatik edozein norabide hartzeko modua edukiko du auto gidariak. Jakina, horrelako lan batek iraun bitartean trafikoa asko moteldu beharko da.

Behin obra amaituta, biribilgune horretatik Begoñaraino espaloi zabal-zabalak, zuhaitzak eta lorategiak izango dira bide bazterrean. Ondoren, Zabalbiden beste biribilgune bat egingo dute eta bertatik eta Ibarsusira arteko zatia urbanizatu- ko dute.

Boulevard berri horretan, Salbetik Ibarsusiraino ehun metrotik ehun metrora zebra-bideak egongo dira. Bide baz- ter guztietan arbolak izango dira eta leku askotan lorate- gjak. Denetara 68 semaforo izango dira eta gehieneko abiadura 50 kilometro ordukoa izango da. Lur azpiko pasa- bideak kendu egingo dituzte, baita bide erdiko zementuz- ko hesia ere.



UDABERRIKO BERTSO SAIO EDERRAK.-

Giro ona eta jende asko batu izan da maia- tzeko zapatuetan Karmelo plazako bertso plazara. Lau saiotan gaur egun bertsoari- zen izen handi asko pasatu dira Santutxutik. Jendearen erantzuna ere polita izan da eta antolatzaileak gustura gelditu dira. Irudian, maiatzaren 27ko saioa, azkena, gupidarik gabeko eguzki baten azpian.

PLAZATXO BERRIA OTXARKOAGAN.-

Pau Casals, Ornilla doktorea eta Jesus Galindez kaleen arteko kantoian Bilboko Udalak plazatxoa atondu berri du. Iturri bi, farola berriak eta belartzak ipini dituz- te zuhaitzak eta jesarlekuak ahaztu barik. Trafikorako, biribilgune bat egokitu dute. Hamaika hilabeteko lana izan da, 932.000 euro gastatuta.



BEGOÑAZPI IKASTOLAKO JAIA.-

Saso honetan beste ikastetxe askok bezalaxe, Txurdinagako Begoñazpi ikas- tolak maiatzaren 27an egin zuen bere aurtengo ikastola eguna. Jende asko hurreratu zen ikastolara, hala umeak nola guraso eta senitartekoak. Argazkian ikusten den moduan, txikienek ez zuten aspertzeko astirik izan, ikastolako jolas- tokia motorren zirkuitu bihurtu zen eta!

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videoporteros
*Aire acondicionado

Juan de Gispola nº9 Lamiá 48004 Bilbo - Fax: 944111652-Tel: 656703855

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia

www.bilbohiria.com

EKAINA

ITALIA	225 Euro
ESLOVENIA / KROAZIA	299 Euro
POLONIA / TXEKIA	375 Euro
ESKOZIA	295 Euro
IRLANDA	325 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com
Iburranga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Botoa

Arzuaga 1 Santutxu

ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08

ASESORIA Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K



18/98KO AUZIPETUEN ALDE.-

Maiatzaren 19an Santutxuko hainbeste elkartek ekitaldi publikoa egin zuten Karmelo plazan 18/98 auziko prozesatuei elkartasuna adierazteko. Kirol, kultura eta gizarte mailako erakunde eta elkarte askok babestu zuten ekitaldia eta, euren bazkideekin, sei zutabe antolatu zituzten auzoan zehar Karmelo plazaraino heltzeko.

TXURDINAGAKO EGOITZA BERRIA.-

Batzuk zarratu eta besteak ireki. IFASen Txurdinagako egoitzak atek dituen bitartean, auzo horretan bertan gero eta aurreratuago dago beste egoitza berri bat, kasu honetan enpresa pribatu batek kudeatuta. Ibarsusi aldean dago, Zumalakarregi ondoan eta zaharren egoitza eta eguneko zentroa izango da. Berrehunen bat plaza edukiko ditu.



ETXEBARRIAN BIDEAK ETA ARBOLAK.-

Azken hilabeteotan Bilboko Udalak bideak markatu ditu Etxebarriako parkeko bazter baten, biribilgunearen aldean. Gainera, zuhaitzak ere landatu dituzte (767 denetara). Edozelan be, Aste Nagusiko barrakak bertan paratuko ei dituzte eta, horregatik, fabrika zaharraren orubea ez dute oraindik benetako parke baten moduan atondu.

Ekainean Castaños auzoa erakutsiko du Bilboko Udalak 'Hil bakoitzean auzo bat' kanpainan

Urriari Santutxutik egingo dituzte doako bisita gidatu horiek

2005ean hasitako kanpainari segida emanaz, aurten ere auzoetatik bisita gidatuak egingo ditu Bilboko Udalak. Bost dira aurten aukeratutako alderdiak eta eurretatik bi Begoñako errepublika zaharreko bazterrak dira. Ekainean bisitak Begoñaibarra edo Castaños auzora hurretatuko dira. Urriari, ostera, Santutxutik ibiliko dira. Bisitaldiok doakoak dira.

Testua: **BERTON**
Argazkia: **Iñigo Azkona**

'Hil bakoitzean, auzo bat' kanpaina 2005ean hasi zuen Bilboko Udalak. Orduan lau auzo bisitatu zituzten: Deustuko Erribera, Ibarrekolanda-San Ignazio, Zazpi Kaleak eta Begoña. Denetara 3.000 lagunek parte hartu zuten bisita gidatu horietan.

Aurtengo programa osatuta dago. Maiatzean bisitak Bilbo Zaharrera hurreratu dira. Eta ekainean Begoñako errepublika zaharra itzuliko dira. Izan ere, hilabete zehar Begoñaibarra edo Castaños auzoa erakutsiko dute. Ibaizabaleko ibarretik (Campo Volatineko pasealekutik) Matikora arteko alderdia ezagutzeko parada emango dute bisita horiek. Besteak beste, bisitariak Bilboko lehenengo zabalgunea izan zela jakingo dute, alderdi horretan burgesiaren bere txalet ikusgarriak eraiki zituen-eta. Geroago, ostera, benetako zabalgunea urez bestaldean eraiki zuten, Abandon.

Eta hain zuzen, horixe izango da hurrengo bisita sortaren helmuga: Abando (Zabalgunea edo Ensanche) irailan bisitatu dute. Eta Olabeaga bere portu giroarekin eta etorkizunerako asmoekin, uztailean ezagutuko dute.

Bi auzo horietan ibili ostean, urriari, atzera be Mahatserrira etorriko dira bisitak, kasu horretan Santutxura. XX. mendearren bigarren erdialdian, eta urte gutxitan, baserri auzoa zena Bilboko auzorik populatuena zelan bilakatu zen azaldu dute ikustaldi horietan.



Begoñako errepublika zaharra airetik ikusita. Behean, Campo Volantin pasealekua

DEBALDE

Bisitak egunenetik zapatura egingo dira, goizez nahiz arratsalde. Talde bakoitzarekin gidari bana joango da, lekuan lekuko azalpenak emanaz. Gidari horiek euskaldunak dira. Ibilbideak talde erdaldun zein euskaldunentzat prestatuta daude. Multzoaren arabera, hizkuntza baten edo bestean emango ditu gidariak bere azalpenak. Paisaiak, hirigintzak, arteak, kulturak eta arkitekturak utzitako ondarea ezagutuko dute bisitariak.

Ikustaldi bakoitzak ordu eta erdiko bidea egingo du eta taldeko hogeit hamar lagun joango dira gehienez. Esan legez, debaldeko bisitak dira. Interesatuta daudenek jo bezate telefono zenbaki honetara: 944356036, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata arte.

D E R R I K A R I A K

D E R R I K A R I A K

Santutxu futbol taldea, txapeldun eta Hirugarren Mailara

Harrobiko gazteekin lortu du talde mahatsorriak bere historian hirugarrenez

Denboraldi bikaina burutuz, Santutxuko futbol taldea Bizkaiko Ohorezko Mailako txapelduna da eta, ondorioz, datorren urtean Hirugarren Mailan aritzeko txartela ere lortu du, klubaren historian hirugarren aldiz.

Testua: Dabi Piedra
Argazkia: Santutxu Futbol Club

Santutxu Futbol Club taldea 1918an sortu zen, baina, 1979-80 denboraldira arte ez zuten lortu Hirugarren mailara lehen aldiz igotzea. 1990-91n ere maila horretara jauzia egin zuten, baina hiru urteren ondoren jaitsi ziren berriro eta, aurten arte, Bizkaiko txapelketa erregionaletan aritu dira.

Ospe eta aurrekontu handiagoko aurkariei aurrea hartuz, ezusteko arrakasta lortu du talde mahatsorriak. Izan ere, Santutxuk harrobian oinarritzen du bere lana eta, fitxaketa gutxirekin, taldearen beheko mailetatik irtendako jokalariz gazteekin txapeldun geratzea benetan aipagarria da.

Ibai Barasoain entrenatzailea ere, gaztea eta espe-rientzia gutxikoa izan arren, bikain moldatu da bere muti- lak Hirugarren Mailara gidatzeko orduan. Txema Ruiz presidentearen hitzetan, "harrobiaren eta auzoko gazteen alde egindako lanagatik merezimendu osoz lortutako saria" da iguera hau.

ATEGORRIN

Erandioko Ategorri zelai ezagunean lortu zuen igoera Santutxuk, bertako taldeari 1-3 irabazita, oraindik liga bukatzeko jardunaldi bat falta zela, maiatzaren 21ean. Orditik, ospakizunetan murgilduta daude talde mahatsor- rian baina hurrengo denboraldirako planak egiten ere hasi dira dagoeneko. Hirugarren Mailan, Bizkaikoez gai-



Santutxu futbol taldeko ekipoa. Klubak emandako irudia

nera, Gipuzkoa eta Arabako taldeak ere biltzen dira eta denboraldi zaila izango da, dudarik gabe.

Alde batetik, fitxaketa batzuk egin beharko dituzte tal- dea indartzeko, beti ere harrobiko lanari muzin egin gabe, eta beste alde batetik, aurrekontua ere handitu beharko dute, Hirugarren Mailan aritzeak aurten baino diru gehiago eskatuko die eta. Horretarako, Santutxuko zaletu eta enpresei, taldeari babesa emateko deia egiten diete, auzoaren laguntzarekin aurrera irtengo direla argi daukate eta.

Maila ez galtzea izango da datorren denboraldiko hel- burua, Txema Ruiz presidentearen ustez lehenengo hamabi sailkatuen artean egotea bikaina litzateke eta "hainbat urtez Hirugarren Mailan egotea".

PICO DE LAS NIEVES (778 M.) LANDERAL (GURIEZO)


Karrantzarako bidean, Villaverde de Tru- cios herrira heltzean, eskuinerantz ateraz- ten den errepidea hartu beharko dugu. Bertako ikurrak Laredorako bidea adieraz- ten du, Turtzioz herria igaro ondoren Guriezo herrira helduko gara eta bi kilo- metrotara El Puente de Guriezo auzoan egongo gara.

Auzo horretan Adino auzora bideratzen duen bide seinale bat dago. Zubi zahar eta estu bat zeharkatu behar dugu eta aurrera- go Langostina eta Corazon auzoetara joa- teko txartel adierazgarriak ikusiko ditugu, baina guk ez dugu handik joan behar, bai- zik eta aurrerantz Landeral (A) auzora heldu arte. Han utziko dugu autoa, errepie- dea amaitzen denean.

Aska eta iturriaren ondotik ateratzen den basabide zabaletik abiatuko gara. Lehen baserri bat ikusiko dugu eskuinaldean, inguruan umeentzako jostagarriak dituelar- rik. Geroago, horma batean zurezko ate bat (B) ikusiko dugu, hori ere eskuinalde- an. Bertan basabidea bitan banatzen da. Gu ezkerretatik joango gara. Bidegurutze batera heltzen garenean (autotik hara ordu erdia) aurrez aurre korta (C) bat ikusten da larra batean. Guk ez dugu hartuko kortara doan basabidea, ez eta eskuinalderantz doana ere, ezkerretatik hesi ondoan eta gorantz doana baizik. Handik aurrera ordu laurden bat gehiago ibiliz beste etxo- la baten ondoan egongo gara, pinu eder zabal bat ondoan dagoena.

Pixka bat aurrerago iturri baten ondotik pasatuko gara. Basabide nagusia jarraituz lepo zabal batera helduko gara. Bidean beste korta batzuk ikusiko ditugu.

Lepo ingurua (D) Caserio de la Virgen izenez ezagutzen da. Gure basabidea zuzen jarraituz, orain harresi artean, laster bukatuko zaigu. Muino baten aurrean egongo gara. Muino hori ezker aldetik inguratu beharko dugu, oso ondo markatuta dagoen gurdibide edo bidexka batetik



Las Nieves mendipean dagoen lepora heldu arte (abuztu- ko jaietan jendez gainezka egoten da, hara joateko tradizio handia dago eta). Handik ezkerretara biragune batzuk eginez eta iturri bat pasatu ondoren tontorra gaindituko dugu (778 m.). Bertan mendiari izena ematen dion base- liza dago.

Ez dauka txartel kutxarik, txartelak uzteko burdinez egin- dako jaiotza erabiltzen da. Guztira ordu bat eta erdi.



IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Telefonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 02/97



Santutxuko poteo gunean



KARMELO IKASTOLAK MOBILIZAZIOEI EGIN DIE ATZERA BE DBHRAKO IRTENBIDE ESKE

Eusko Jaurlaritzak ez du egin nahi 2003an agindutako eraikina

Karmelo ikastola kalera atera da maiatzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako (DBH) behar duen irtenbidea eskatzeko. 2003an Eusko Jaurlaritzak eraikin berri bi egingo zituela agindu zuen, bata Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako eta bestea DBHrako. Azken hori, ordea, ez egitea erabaki du Gasteizko gobernuak, garestiegia izango litzatekeelakoan. Ikastolak konponbidea nahi du eta ekainean protestekin segituko du.

Testua: H.O.
Argazkiak: Prest!

Maiatzaren 19an, arratsaldean, Karmelo ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak kalera atera ziren 'Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udala: konponbidea orain' zioen pankartaren atzetik. Gogaituta daude. Hainbeste urte dira ikastola publikoak lokal berri eta egokiak eskatzen dituztela eta oraindik ez dute ezer ikusi. Are gehiago, orain dela hiru urteko berba jan dute instituzioek.

Izan ere, 2002 eta 2003 urteetan

Karmelo ikastolak mobilizazio ugari egin zituen eraikin berri egokiak eskatzeko. Azkenean, akordioa sinatu zuten ikastolak eta instituzioek. Larreagaburu (Mina del Morro) aldean egin behar zuten parkearen ondoan ikastolarentzat eraikin berri bi altxatu behar zuten Eusko Jaurlaritzak Bilboko Udalaren laguntzaz. Biotako baten ikastolako txikerrenak sartu behar ziren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkun-

tza. Bigarren eraikina, oster, DBHrako egokitu behar zuten.

"Kontua da -azaldu du Jabi Lopez Karmeloko zuzendariak- Larreagaburuko parkearen ideia oraingoz baztertu dutela eta, ondorioz, ikastola egiteko mendian zulo itzela egin behar dutela. Dirutza handia eskatuko luke". Alternatiba gisa, Hezkuntza sailak beste orube bat eskaini du Mina del Morro eskola publikoaren alboan, baina ber-



tan eraikin bakarra eraikiko luke, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzaren zat.

"Guk izenpetu genuen akordioak hamasei urte arteko irakaskuntza hartu zuen bere baitan. Orain hori desagertu da eta galdetzen badugu ere, ez digute erantzun zuzenik ematen", argitu du zuzendariak. "Guk sinatutakoari eustea eskatzen dugu, hau da, DBHrako konponbidea nahi dugu", nabarmendu du.

MOBILIZAZIOAK

DBHren geroa argitu ezean, ikastola prest dago protestekin jarraitzeko. Ekainaren 7an eta 14an, gurasoek kontzentrazioak egingo dituzte Hezkuntza sailaren aurrean (Bilboko Gran



Vían) eguerdiko 11etatik 12etara. Eta mobilizazioei eusteko prest daude arazoak dirauen bitartean.

Eskola Mapa egokitu arte itxaroteko ere esan diete Hezkuntza sailetik, baina oraingoz hortik ere ez da aterabiderik sortu.

LARREAGABURU

Bitartean, lehenengo eraikina egiteko prozesuari ekin diote Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak. Lehenengo urratsa Mina del Morro eskola ondoko orubearen kalifikazioa aldatzea izango da. Tramiteak hilabete batzuk eskatuko ditu. Ondo bidean, obrak 2007an hasiko lirateke.

"Guri esan digute 2009-2010 ikasturterako eginda egongo dela, -kontatu



du Jabi Lopezek-. Beraz, 2009ko iraile-rako amaituta behar luke". Bertara, esan legez, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza joango lirateke. "Baina DBHri konponbidea eman behar zaio hori baino lehen", zehaztu du zuzendariak.

Karmelo ikastolak babes sozial handia lortu zuen 2002-2003 urteetan bere eraikin berria Santutxun egiteko kanpaina hasi zuenean. Auzoko hainbeste elkarteren sostengua eskuratu zuten. Hermanitas de los Pobres mojen ondoko orubea eskatu zuten ikastola berria egiteko, baina Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak aukera hura baztertu zuten. Lur sail hartan etxebizitzak eraiki zituzten.

MAHATSORRIAK KURDISTANEN


Euskal Herriko folkloreak ordezkarri gisa jaialdi baten hartu dute parte



Testua: **Arrate Diez**
Argazkiak: **BERTON**

Juan Sorin bilbotarra Newroz elkarteko kidea zen, Newroz (kurduen Aberri Eguna) elkartasun elkarte bat zen. Turkiako kurduen hiriburuan, Diyarbakir hirian, (kurdueraz Amed) jaialdi bat ospatzen dute urtero, haurren jaialdi bat, folkloreak erakustaldia egiten dute. Dirudien urtero joan izan dira kanpotik emanaldiak egitera. Iaz Galiziatik, Santiago de Compostelatik joan ziren, herri horrekin anaikideta baitago. Aurten, ordea, interes berezia zuten Euskal Herriak jendea joan zedin.

Antolatzaileek politikoki hemen dauden aldaketan berri badute, oihartzun bat badute. Arkaitz Estiballes taldekideak esan digunez, "hasiera batean dantza talde bat zegoen joateko baina oso zaila da hara ume edo gazteekin joatea eta joan baino hiru aste lehenago egoera nahiko gogortu zen hiriburuan bertan. Beraz, Juan Sorin Santutxuko bertso eskolara hurbildu zen eta hara joateko talde bat presta genezakeen eskatu zigun". Santutxuko Bertso Eskolako batzuek, 'fitxaje' batzuen laguntzaz taldetxo bat osatu zuten eta Kurdistanera abiatu ziren. Taldean Uxue Alberdi, Fredi Paia, Asier Gonzalez, Jon Gaminde "Gamis", Josu Martinez, Urtzi Urrutikoetxea, Arkaitz Estiballes eta Goretti Rodriguez zeuden. Arkaitzek dioenez, "Fredi bertsolari eta musikari gisa egon da, trikiti-



Bertsoak, txalaparta doinuak, jota, arin-arin, fandangoa eta abestiez jositako emanaldia eskaini du Kurdistanen Euskal Herriak abiatutako gazte talde batek. Urtero umeentzako folkloreak erakustaldia jaialdi bat ospatzen dute Amed hirian eta aurten turkiar armadak hildako zazpi urteko ume bi omendu dituzte. Europatik hara joandako talde bakarra izan da eta kurduen "kultura debekatuan" barrena ibili dira maiatzeko hirugarren astean. Euskal delegazioaren partaide gehienak mahatsorriak izan dira.

xa jotzen ibili da-eta. Asier, Gamis eta Josu musikari modura, Goretti dantzan egiten zuten eta Urtzi eta biok bertsotan. Josuk gitarra jotzen zuten eta Asierrek eta Gamisek alboka,

gaita eta txalaparta. Taldea osatu genuen eta Xirika izena jarri genion eta instrumentuekin Diyarbakirreko aireportuan azaldu ginen".

Hasieratik gauzak ez ziren horren errazak izan. AirTurkishera prezioak eskatzera joan eta galdeztzen ibili ziren zergatik zihozzen euskaldun batzuk turistikoak ez den gune batera. Turkiarrek nahiko zaintzen dute zonalde hori eta ez dute nahi hara inor joatea. Aireportuan seguritate kontrol asko pasatu behar izan zituzten eta astean zehar ere arazoak eduki zituzten. "Ekitaldi guztietara eramaten genuen ikurrina eta Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra eta arazoak izan genituen ez zekitelako zer jartzen zuten. Hirugarren egunean Udalak emandako identifikazio txartel bereziak eskatzen etorri zitzaizkigun. Hurrengo egunean bideokamerarekin grabatzen etorri ziren. Guk dudak genituen; ez genekien Espainiako enbaxadara bidaltzeko ziren ala gure ekitaldia asko gustatzen zitzaizela eta beraiek ikusteko zen", gaineratu du bertsolariak.

EUROPAKO KURDUAK


Egunero bi ekitaldi egiten dituzte hiriko auzo gehienetan, auzoz auzo aldatzen joan dira. Auzo bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu, bere erlijioa, pobrezia gehiago ala gutxiago. Eskaini dutena ordu erdiko

emanaldia izan da. Arkaitzek dioenez, "Europatik ez zen beste ordezkaririk joan eta han bildu ginen Irakiko kurduak, Iraneko kurduak, Siriako kurduak, Turkiako kurduak eta gu, -Europako kurduak deitzen genion geure buruari-". Hasi bertso birekin hasten ziren, txalaparta doinuak, gero jota, arin-arina, fandangoa eta abesti batekin amaitzen zuten. Bertsolariek mimika eta hitzen batzuk kurdueraz ere erabili dituzte.

Harremanetarako Juan Sorinek turkoz dakienekin komunikatu ahal ziren eta gainera kurduak jarritako laguntzaile bat zuten Ali izeneko eta hark ingelesez ere bazekien. "Kurdueraz ia denek dakite baina erabat zigortuta dago. Etxean jaso dute kurdueraz, baina ezin dute hitz bat bera ere egin ezta Kurdistan hitza ere erabili." Adibide bezala, Diyarbakir sud izeneko zonaldeko alkateak duela hiru bat aste kartelen bat kurdueraz jar zitekeen proposatu zuten eta proposamen hori egiteagatik bakarrik, hiru urteko kartzela zigorra eskatzen diote.

OKUPAZIOA

"Kurduen aldetik oso inpresio hona izan dugu, gurekin antzekotasun asko daukate. Miseriarik ez da ikusten, pobrezia da ikusten dena, daukaten apurra banatu egiten dutelako. Eta turkoen aldetik, Europari begira aurpegi bat daukate. Europari harreman hori mantentzea komeni zaio Turkiak delako



Europaren inportatzaile handienetako bat baina ezagutu dezakegun estatu errepublikarik handiena dugu. Esaterako, presoek gose greba mugagabeen hiltzen urteak daramatzate eta azken kasuetan, funtzionarioak eta militarrek kartzeletan sartzen hasi dira eta borroka horretan dauden presoek bizirik daudela sua ematen", kontatu du Arkaitzek. Lice hirian egon ziren eta bertako alkateak esan zien lehen biztanle kopuru oso handia zutela baina Turkiak bon-

bardatu zuen, hirurehun lagun hil ziren bonbardaketan eta 50.000ak alde egin zuten Istanbulera. Egun hamabost mila pertsona bizi dira hamabost mila soldadurekin (soldadu bat pertsonako). Gainera, Turkiako gobernuak lege bat onartu du eta horri esker poliziak zein ejertzitoak sei urtetik gorako hurrei tirokatzea baimentzen du. Herrietan langabezia eta eskubideen murrizketa dira arazorik gogorrenak eta bertan heriotza nahiko gauza merkea da.

Amed hiriak sei kilometroko harresia du, munduko bigarren handiena. Emakumeen paperari buruz ere galdetu dute eta gizarte atzeratu bateko emakumeen arazok dituzte. Izan ere, langabezia biztanleriaren %75etik gorakoa da, baina politikoki eta eskubideen aldetik, kurduen artean eskubide guztiak dituztela dioskute. "Denetarik ikusi dugu, herri batzuetan emakumeak goitik behera estalita eta beste batzuetan hemen bezala. Kurduen gizartea, nahiko gizarte matriarkala da eta emakumeak familian pisu handia du", argitu du bertsolariak.

Xirika taldekoen emanaldien artean enpresa bat inauguratzeko astia ere izan dute eta hango langileen alderdikoekin egoteko parada ere izan dute. "Hizkuntzaren mugen gainetik beraiekin konektatzen jakin dugu eta beraien egoera larria zabaltzeko konpromisoa ere hartu dugu. Oso gustura ibili gara nahiz eta haien egoera benetan lazgarria den", amaitu du Arkaitzek.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.

Bikiniak gora, bikiniak behera, ... uda sasoia ate joka eta zu aukeratu barik?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.

Zelako gazte zagozen, matusalen!



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.

Musuka etorri jatzuna, koipe larregi. Aukeran, hoba zintzoak.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.

Uiuiui! Berrogeitik gora gerontofilia esaten jako...



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.

Jai giroa usaintzen hasi zara, eh? Basapiztien usaimena dekozu.



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.

Laga bakean e-mulea, gazte, mandoa nekatuko dozu eta. Inoiz diskoren bat erosi be egingo dozu, ezta?



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.

Look gotikoa hautatu behar ei dozu. Zeuk ikusi, baina pena emoteko modu hobegoak dagoz. Galdetu, galdetu...



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.

Artxandako basoetan laminak dagoz. Bai, eta gauetan batzuk etxeetara hurreratzen dira, isilean, inor konturatu barik,...



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.

Zeu be odol autotransfusioak egiten zenduzan? Eufemiano-renean? Txo, gaupaseroak gero eta profesionalagoak...



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.

Mundialena zer? Laster dira hemen eta oraindino ez dakigu ezer.



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.

Bikotekideari inoiz berba gozoren bat esan beharko deusazu ezta? Badakizu: laztana, bihotza, pitxin, my baby...



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.

Amaitu da sufrikarioa. Orain lortu behar dogu datorren urteko liga ahalik eta gehien atzeratzea. Urte bi, barbarako.

agenda

EKAINAK 2

EUSKERIA ABESBATZAREN KONTZERTUA. BOLUETAKO SANTA ANA PARROKIAN. 20:15EAN.

EKAINAK 3

MINTZA EGUNA. IRUÑEA.

EKAINAK 9

HERRIRA PLATAFORMAREN MANIFESTAZIOA. RITXI PLAZA. 20:00ETAN.

EKAINAK 9

HEGOAMERIKAKO MUSIKA ETA DANTZA EMANALDIA. 'INTI-LLACTA' ETA 'COR Y LUR'. ETXEBARRIA PARKEAN, POLBORETXE BIDEAN. 19:30EAN.

EKAINAK 9-11

GETXOKO BLUES JAIALDIA. KONTZERTUAK ILUNTZEAN ALGORTAKO PORTU ZAHARREAN.

EKAINAK 11

LIZARTZU MENDIRA (NAFARROA) IRTEERA. OTSONDOTIK-HASITA. EGUN OSOKO IRTEERA. SANTUTXUKO MENDIZALE TALDEAK ANTOLATUTA.

EKAINAK 18

ARABA EUSKARAZ'06. ARMENTIA (GASTEIZ).

EKAINAK 20

IDIAZABALGO GAZTA DASTAKETA ETA EUSKAL ARTZAINZAREN HISTORIA LABURRA. ASAPALAK ANTOLATUTA. SANTUTXUKO GAROA TXOKOAN. 20:00ETAN.

EKAINAK 23

'EUSKAL HERRIA DANTZATZEN ETA KANTATZEN DUEN HERRIA'. EUSKERIA ABESBATZA ETA GAZTEDI DANTZA TALDEA. KARMELO PLAZAN. 21:00ETAN.

EKAINAK 24

EUSKAL DANTZAK. GAZTEDI DANTZA TALDEA. KARMELO PLAZAN. 19:30EAN.

EKAINAK 28

JUAN LUIS ZABALA. 'INON IZATEKOTAN' LIBURUA AURKEZTUKO DU. ASAPALAREN IRAKURLEAREN TARTEA'. ARBIDEAKO EUSKALTEGIAN. 20:00ETAN.

Elorrieta
Erreka Mari
I.E.F.P.S./G.B.L.H.I.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BATXILERGOA

teknologikoa A eta D ereduak
humanistikoa A eredu

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi eta erdi mailak
A eredu

Informatika
Elektrizitatea
Merkataritza
Administrazioa

D ereduan ere!

AURREMATRIKULA

EKAINAREN 1ETIK 7RARTE

Lehendakari Agirre 184 Tfnoa. 944028000



www.elorrieta-errekamari.com